

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: MERKATARITZASEKTOREA BIZIBERRITZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2023 URTEA

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Oinarri hauen helburua merkataritza sektorea biziberritzea da, hutsik dauden lokalak martxan jartzeko laguntzak emanez eta eskualdatzen denean negozioen jarraipena bultzatuz.

Oinarri hauen xedea merkataritza jardueraren bat lokal huts batean abian jarri edo martxan dagoen negozioa eskualdatu nahi duen pertsonak bete behar dituen baldintzak eta betekizunak zehaztea da.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

A. ORAINDIK MARTXAN DAGOEN ETA EROSI EDO ALOKATU NAHI DEN NEGOZIOA ESKUALDATZEKO.

- a) Lokalen kokapena eta ezar daitezkeen jarduerak.

Negozioak Beasaingo udalerrian kokatuta egon behar du. Sektore edo jardun hauetakoren batekin lotura duten jarduerak ezarri ahal izango dira lokal horietan: txikizkako merkataritza, pertsonen zuzendutako enpresak eta merkataritza aldetik udalerria suspertzen lagunduko duten bestelako proiektuak.

- b) Negozio horrekin jarraitu nahi duten ekintzaileek eguneanizan beharko dituzte Administrazio publikoekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

- c) Berriz Enpresa progarman parte har dezakete. Horrek jarduera gauzatzen den lokala erosi edo alokatzeko aholkularitza ematen du.

B. HUTSIK DAGOEN LOKALA ALOKATZEKO DIRULAGUNTZAK.

- a) Aplikazio-eremua eta dirulaguntza motak.

Negozia Beasainen egon behar da. Sektore edo jardun hauetakoren batekin lotura duten jarduerak ezarri ahal izango dira lokal horietan: txikizkako merkataritza, pertsonen zuzendutako enpresak eta merkataritza aldetik gunea suspertzen lagunduko duten bestelako proiektuak.

Dirulaguntza jasotzen duen titularrak nahitaez erabili beharko du lokala aurkeztutako proiekturako, eta ezin izango du lokala beste jarduera mota baterako erabili.

- b) Lokal huts baten ardura hartu nahi duten ekintzaileak.

Bere jarduera ekonomikoa Beasaingo lokal hutsen batean bat hasi nahi duten pertsona fisiko edo juridiko guztientzat izango da deialdia, interesatuaren bizilekua edozein dela ere.

C. HUTSIK DAGOEN LOKALA EROSTEKO DIRULAGUNTZAK.

Hutsik dagoen lokala erosteko dirulaguntzak jasotzeko baldintzak, hutsik dagoen lokala alokatzeko jarritako baldintzen berdinak dira.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

A. ORAINDIK MARTXAN DAGOEN ETA EROSI EDO ALOKATU NAHI DEN NEGOZIOA ESKUALDATZEKO. BERRIZ ENPRESA

Jarduera garatuko duenak establezimendua alokatuz gero, gehienez lehen hiru urteetako alokairu- gastuak diruz ordainduko zaizkio, betiere aurrekontu egokia eta nahikoa egonez gero.

- Lehenengo urtean alokairu gastuaren %50, gehienez ere 300€ hilean.
- Bigarren eta hirugarren urtean alokairu gastuaren %40, gehienez ere 200€ hilean. Horretarako, ekitaldi ekonomiko bakoitzeko abenduaren 15a baino lehen, urte horri dagozkion fakturak aurkeztu beharko ditu

Establezimendua erosiz gero, dirulaguntza higiezinaren Katastroko balioaren %4 izango da, gehienez ere 2.000€

B. HUTSIK DAGOEN LOKALA ALOKATZEKO DIRULAGUNTZAK.

Dirulaguntzak eskuratzeko gutxienez hiru urteko iraupena izan behar du alokatze-kontratuak. Gehienez ere lehenengo hiru urteko alokairu gastuak lagunduko dira:

- Lehenengo urtean alokairu gastuaren %50, gehienez ere 300€ hilean.
- Bigarren eta hirugarren urtean alokairu gastuaren %40, gehienez ere 200€ hilean.

C. HUTSIK DAGOEN LOKALA EROSTEKO DIRULAGUNTZAK.

Dirulaguntza higiezinaren katastro-balioaren %4, gehienez ere, 2.000€.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

-Epea:

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOon argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskabideak aurkeztu ahal izango dira eta horiek aurkezteko epea 2023-11-30ean amaituko da.

-Modua:

Dirulaguntza eskatzen duten ekintzaileek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, jarraian adierazten diren agiri guztiekin batera, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoa bidez, ahal izanez gero: [http:// www.beasain.eus/es/bulego-birtuala](http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala), edo Udalaren erregistroan, I. eranskineko ereduaren arabera.